

**UDALEKU IREKIETAN MARIAREN LAGUNDIA IKASTOLAREN ERABILERA
ARAUTZEKO HITZARMENA**

Bergaran, 2023ko maiatzaren 23an

BILDU DIRA

Alde batetik, Gorka Artola Alberdi, Bergarako Alkatea, Bergarako Udalaren ordezkaritzan.

Bestetik, Nagore Murua Uria andrea, adinez nagusia, Bergarako Mariaren Lagundia ikastolako zuzendaria, Mariaren Lagundia ikastolaren izenean,

Bi aldeek elkar behartzeko ahalmena aitortu eta ondorengo adierazi dute.

ADIERAZPENAK

2023ko Udaleku irekiak antolatzeko, Bergarako Udalak Mariaren Lagundia ikastolari bertako espazio batzuk erabiltzeko baimena eskatu dio.

Udaleku irekiak ekainaren 26an hasi eta uztailaren 21era arte izango dira goizeko 9:45etik 13:15era.

Udalak Udalekuak Jardun euskara elkartearen bidez antolatu ditu, kontratatuko diren begirale guztiak Jardunek kontratatuko ditu.

KLAUSULAK

LEHENENGOA: UDALAREN BETEBEHARRAK.

Udalekuak direla eta, gertatutako kalteen (apurketak, desagerpenak,...) ordainketa bere gain hartuko du.

Udalekuak eta hauen antolaketak irauten duten bitartean, udalekuetako arduradunak udalarekin eta zentroko zuzendaritzarekin harremanetan egongo dira. Eraikuntzan edozein kalte gertatuz gero, zentroko zuzendaritzari jakinaraziko diote.

Udalekuetako parte-hartzaileek jasotako eta sortutako kalteengan, ez du Mariaren Lagundia ikastolak inolako erantzukizunik izango.

Programa hau bukatutakoan programa hau aurrera eramateko kontratatutako langileek instalazioak garbi utziko dituzte, aurkitu dituzten moduan.

BIGARRENA: MARIAREN LAGUNDIA IKASTOLAREN BETEBEHARRAK.

Udalekuetarako Mariaren Lagundia ikastolak ondorengoak utziko ditu:

- 3 gela, komunak eta kanpoko espazioa.

HIRUGARRENA: HITZARMENAREN IRAUPENA.

Hitzarmen honek 2023ko Udaleku irekietarako balioko du, hauek bukatutakoan (eta hitzartutakoak betetakoan) sinatzaileek ez dute elkarrenganako inolako erantzukizunik izango.

Horrela jasota geratzeko, eta hitzartutakoarekin ados daudela eta bertan jasotakoa zintzo eta leial beteko dutela adierazteko, hitzarmen honen hiru kopia sinatu dituzte, hasieran aipatutako toki eta egunean.



**Begarako Alkatea
Gorka Artola Alberdi**



**Mariaren Lagundia ikastolako zuzendaria
Nagore Murua Uria**